

# OINARRIZKO FINANTZAK EZAGUTZAK

## 1. DIRUA

Dirua beharrezko elementua da gure eguneroko bizitzan, hainbat funtzio betetzen baititu:

### 1.1. DIRUAREN FUNTZIOAK

Diruaren funtzio nagusia truke-bitarteko gisa erabiltzea da, baina baditu beste funtzio garrantzitsu batzuk ere:

bitartekoa	nahi ditugun gauzen ordainketarako dirua da elementu nagusia. Dirurik izango ez bagenu ordaintzeko edota kobratzeko, ondasun eta zerbitzuak erabili beharko genituzke trukatzeko, jatorrian erabiltzen genituen moduan. Diruak trukeak errazten ditu.
gordailua	bere balio mantentzen du, ondasun iraunkorra da (ez da usteltzen edo zahartzen) eta jabeak nahi bitartean gorde dezake (etxean, bankuan...), aurrerago erabiltzeko. Hala ere, kontutan hartu behar da, inflazioaren poderioz diruak bere balioa gutxitu dezakela (prezioak igoz gero, gutxiago eros daiteke).
unitate komuna	mian, gauzen balioa dirutan neurtzen dugu eta horri esker elementu ezberdinen balioa batu dezakegu edo konparatu. <i>Adibidez: Ogi barra batek euro bat balio du eta mugikor batek 200 euro; beraz, mugikor batek 200 ogi barrak adina balio du, eta ogi barra bat eta mugikor bat badugu; guztira, 201 euroko balioa duten ondasunak ditugu.</i>

### 1.2. DIRU-MOTAK

#### 1.2.1. KONFIDANTZAZKO DIRUA EDO DIRU FIDUZIARIOA

Gaur egun erabiltzen dugun diruaren ezaugarri nagusia **konfiantzan** oinarritzen dela da. Horregatik, **diru fiduziariora** deritzo.

Historian zehar erabilitako beste diru motek, trukagarritasuna zuten; hau da, paperezko diru hori urregatik truka zitekeen. Gaur eguneko dirua, ordea, ez. **Ez du trukagarritasunik**: billeteak papera eta tinta baino ez dira eta txanponak balio txikiko metalezkoak dira, ezin ditugu urre edo baliozko beste ezerengatik aldatu.

Billete edo txanpon horiek balioa dute, guk hala ematen diogulako, esleituta duten balioan sinesten dugu eta prest gaude balio horri dagokion ondasun eta zerbitzuak emateko trukean. Konfiantza hori da diru fiduziarioaren oinarria.

#### 1.2.2. DIRU FIDUZIARIO MOTAK

Konfiantzazko diru edo fiduziario moduan, hauek dira onartzen ditugunak gaur egun:

##### A) LEGEZKO DIRUA

Herrialde bakoitzean banku zentralak jaulkitako **txanpon eta billeteak** dira, esku-dirua. Espainiaren kasuan, euroguneko herrialdea izanik, euroa du moneta gisa, euroguneko herrialde guztiek bezala. Europako Banku Zentralak jaulkitzen eta kontrolatzen du euroguneko herrialdeetan zirkulatzen duen diru-kantitatea.

## B) BANKU-DIRUA

Banku-dirua **birtuala** da, ukiezina. Dirua fisikoa, esku-dirua, bankuan sartzen dugun momentuan, diru hori apunte bat bihurtzen da. Gure kontuan apuntatuta ikus dezakegu (ordenagailuan kontuak begiratzean, libretan kopurua agertzen denean...), baina diru hori atera arte ez da fisikoki existitzen, esku-diru izateari uzten dio.

*Adb: Guk 1.000 euro billete eta txanponetan bankura eramaten ditugunean gure kontuan sartzeko, bankuan diru hori jasotzen digute eta gure kontuan 1.000 euro gehiago apuntatzen dizkigute. Diru horrekin, transferentziak edo ordainketak egin ditzakegu beste kontuetara, baina berriro diru hori atera arte bankutik, ez da berriro billete edo txanpon bihurtuko.*

*Bankuan dagoen bitartean, txanpon eta billete horiek bankuak erabil dezake beste helburuetarako: beste bezero bati mailegatzeko, adibidez.*

Gaur egun, diru birtual hau gero eta gehiago erabiltzen da gure egunerokoan eta, etorkizunean, gero eta diru mugimendu gehiago egingo dira diru birtualarekin, diru fisikoaren erabilera gutxituz. Europako hainbat hiritan (Norvegian, adibidez), diru efektiboa erabilera ia guztiz kendu da (ordainketen %10 baino ez dira egiten diru efektiboan) eta ordainketa txikiena ere, txartel edo mugikor bidez egiten daiteke.

Jarrera hau, etorkizunean nabarmenduko da eta areagotuko da, diru efektiboa desagerraraziz edo, behintzat, ordainketa hondar-modu bezala baliatuz.

### 1.3. DIRUAREN KUDEAKETA

Gure eskuetatik diru igarotzen da; dirua jasotzen dugu eta dirua ordaintzen dugu. Funtsezkoa da, gure gaur eguneko eta etorkizuneko beharrak betetzeko, gure eskura dagoen dirua egoki kudeatzea; finantza-planifikazio egokia egitea.

Horretarako, aurrekontuak egitea eta doitzen joatea ezinbestekoa da.

## 2. DIRU-SARRERAK, GASTUAK

### 2.1. DIRU-SARRERAK

Diru-sarrerak dira ditugun diru-iturrietatik (soldata, negozio etekinak, inbertsioen mozkinak...) lortzen ditugun diru-kantitateak.

Diru-sarrerak, batzuetan, epeka errepikatzen dira (adibidez, soldata hilerro) eta beste batzuetan, noizbehinkakoak edo ez-ohikoak dira (negozio baten mozkinak, adibidez, irabaziak daudenean jasoko dira, enpresak mozkinak banatzea erabakitzen badu).

Diru-sarrera ohikoenak:

Jarrera ohikoenak

a
e Segurantzako pentsioa (erretiratuak, desgaituak...)
nu-pentsioak
ioetako etekinak
sioetako mozkinak
etako kontuen interesak
guntzak
ko-lanak

## 2.2. GASTUAK

Gastuak, berriz, sortzen zaizkigun diru-irteerak dira, ordaintzen dugun dirua, hain zuzen.

### 2.2.1. GASTU MOTAK

Gastuak 3 taldetan sailka ditzakegu bere ezaugarri eta garrantzien arabera:

Gastu-mota	Ezaugarriak	Adibideak
ezko gastu finakoak	stekoa da hauek ordaintzea, ondorio oso kaltegarriak izan baititzakete. Kopurua ez da aldatzen.	ka, etxearen alokairua, bankuen maileguak...
ezko gastu aldakorrak	ira guztiz kendu, baina hauen kopurua murriztu edo mugatu daiteke.	a, fakturak (argindarra, gasa, telefonoa...), arropa.
ezkoak ez diren gastuak, baztergarriak	tu daitezkeen gastuak, ez dira beharrezkoak	k, zinema, etxetik kanpo jatea, bidaiak

Lehentasun horiek kontutan izanda, gastuak gutxitu behar direnean, beharrezkoak ez direnetatik hasi behar da, horiek kenduz. Ondoren, beharrezko gastu aldakorrak ahal bezain bat gutxitu beharko dira; baina, nahitaezko gastu finakoak ordaintzea ezinbestekoa izango da.

### 2.2.2. GASTUAK EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOAK

Ordaindu beharreko gastuei aurre egiten ez diegunean, guretzat ondorio negatiboak ditu. Gastu motaren arabera, ondorioak larriagoak edo arinagoak dira, baina beti negatiboak. Gastu horiek, nahitaezko gastu finakoak direnean, ez ordaintzearen ondorioak oso gogorak izan daitezke.

Horregatik, gastu horiek ordaintzerik ez dugunean, hoberena hartzekodunekin hitz egitea eta negoziatzea da (atzerapen bat, pixkanaka ordaintzen joatea...). Auzian sartzea edo epaiketetara jotzea ez da inorentzat aukera egokia izaten (irudi txarra ematen du, gastuak sortzen dira, erlazioak zapuzten dira...), irtenbide bat bilatzea beti da aukera hobea zorduna nahiz hartzekodunarentzat.

Zorrrak ez ordaintzeagatik izan ditzakegun ondorioz nagusienak hauek dira:

#### A) ZORRA HANDITZEA

Gastuak ordaintzen ez ditugunean, gastu gehigarriak sortzen dira (**berandutze-interesak**) eta horiek zorrari gehitzen zaizkio. Ondorioz, berandu ordaintzeak, gure zorra gehitzea dakar.

#### B) EPAIKETEI EDO AUZIEI AURRE EGIN BEHAR IZATEA

Gure ordaintzei aurre egiten ez diegunean, dirua jaso behar zuten hartzekodunek, epaitegira jo dezakete beren dirua eskatzera. Hori gertatuz gero, gartuak izango ditugu: epaiketaren gastuak, abokatu... eta abar.

#### C) GURE ONDASUNAK GALTZEA EDO ENBARGOAK JASATEA

Zorrrak ordaintzen ez ditugunean, hartzekodunek eska dezakete gure jabetzak baliatzea zorra ordaintzeko eta ondasun horiek gal ditzakegu: etxea, kotxea, motorra....

#### D) KREDITU-HISTORIALA OKERTZEA

Zorrrak epean ordaintzen ez baditugu eta egoera luzatzen bada, **berankorren** zerrendetan sartu gaitzke. Lista beltz hauetan agertzen dira zorrrak ordaindu ez dituzten pertsonak eta, banku eta enpresak askok lista hauetan begiratzen dute inori dirua utzi edo kredituz saldu aurretik. Ondorioz, zerrenda horietan egoteak zaildu dezake etorkizunean maileguak lortzeko aukera izatea.

Zerrenda horietan sartzea ez da zaila, gure ordaintzetan atzeratuz gero, epe batean egiten ez baditugu, hartzekodunak eska dezake bertan sartuak izatea. Ateratzea, ordea, ez da hain erraza, epe luzeak igaro behar dira eta izapideak egin behar dira zerrenda horietatik atera ahal izateko.

### 3. AURREKONTUA

#### 3.1. NOLA EGITEN DA?

Diru-sarrerak eta, bereziki, gastuak ez dira beti berdinak. Askotan ustekabeko gastuak sortzen dira edo diru-sarrerak gutxitzen dira (lana galtzea, diru-laguntzak galtzea, inbertsioek esperotako etekinak ez ematea ...).

Aldaketa horiek etekin kaltegarriak izan ez ditzaten pertsona edo familia baten egoeran, komenigarria da, ahal den heinean, **aurrezte**; eta, horretarako **aurrekontua** da erreminta baliagarriena.

Aurrekontuan idatziko ditugun izango ditugun diru-sarrera eta gastuak hilabete bakoitzeko eta, ondoren, diru-sarrerei gastuak kenduz, hilabete bakoitzeko soberan dugun dirua ikusiko dugu. Honela, erabaki dezakegu zenbat diru aurrezteko gaitasuna dugun eta gure **aurrezte-plana** antolatu dezakegu.

#### 3.2. AURREKONTUA DOITZEA

Aurrekontuekin ez da nahikoa momentu batean osatzea; egin ondoren, aldizka, berrikusi behar dira. Egoerak aldatuz doaz: diru-sarrerak handitzen edo gutxitzen dira; gastuak aldatzen, agertzen edo desagertzen dira. Beraz, ezinbestekoa da, erreminta baliagarria izan dadin, epeka berrikustea eta doitzea.

### 3.3. AURREKONTUAREN EMAITZA

Aurrekontuan, esan bezala, diru-sarrerei gastuak kenduko dizkiogu. Kenketa horren emaitza, **saldoa**, positiboa (diru-sarrerak altuagoak direnean) edo negatiboa (gastuak altuagoak direnean) izan daiteke.

Lehenengo kasuan, **saldoa positiboa** denean, soberan geratzen den dirua **aurreztu** ahal izango dugu. Horrela, diru horrekin, etorkizunean, behar edo nahi ditugun gastuei aurre egin ahal izango diegu (oporrak, ezusteko gastuak, kotxea edo etxea berritu...). Beste aukera bat, **inbertitzea** izango da; hau da, dirua inbertsio produkturen batean edo negozio batean sartzea, etekinak lortzeko eta dugun diru-kantitatea gehitzeko.

Bigarren kasuan, **saldoa negatiboa** denean, ez dugu nahikoa diru izango zorrei aurre egiteko eta, aipatutako ondorio negatiboak izan nahi ez baditugu, diru-sarrerak handitu edo gastuak gutxitu beharko ditugu.

Diru-sarrerak handitzea beti ez da erraza epe motzera; agian izan dezakegu ordu estrak egiteko aukera edo lan berriren bat bilatzerik, baina beti ez dago aukera.

Gastuak gutxitzea hein batean, ordea, normalean errazagoa da. Horretarako, beharrezkoak ez diren gastuetatik hasi beharko dugu, horiek kenduz (etxetik kanpora ez bazkaldu egoera aldatu arte, zinera ez joan, ez bidaiatu...). Nahiko ez balitz, beharrezko gastu aldakorrak gutxitu beharko ditugu. Hauek ezin dira beti guztik kendu, baina bai gutxitu (janari merkeagoa erosi, arropa ezinbestekoa ez denean baino ez erosi, argindarra edo telefonoa minimoan kontsumitu....).

Hala ere, gastuak diru-sarrerak baino handiagoak badira eta saldo negatiboa badugu, **finantzaketa** bilatzeko beharrean izango gara: dirua utziko duen inor bilatu beharko dugu. Baina, finantzaketa bat lortu ahal izateko, etorkizunean diru hori itzuli ahal izateko gaitasuna izan behar dugu; hala ez balitz, ez dugu finantzaketa hori emango digunik lortuko, nork ez baitu dirua mailegatu nahiko, itzuliko ez duen norbaitek.

### 3.4. AURREKONTUAREN AZTERKETA

Behin aurrekontua osatuta, garrantzitsua da aurrekontuaren azterketa egitea eta bertan dauden atalen pisua aztertzea. Horretarako, aurrekontuko atal bakoitzak duen ehuneko pisua (%) adieraztea eta aztertzea komeni da. Modu horretan, ikus daiteke aurrekontuaren zein zati suposatzen duen gastu mota bakoitzak eta ikuspegi horrek lagun dezake aurrekontua orekatzen.

Aztertzen baditugu dauden gastu mota ezberdinak:

- Nahitaezko gastu finkoak
- Beharrezko gastu aldakorrak
- Beharrezkoak ez diren gastuak, baztergarriak

eta ikusita gure aurrekontuak zer nolako ehunekoa suposatzen duen atal bakoitzak, ikus ditzakegu zein erabaki hartu behar diren.

Adibidez:

Aurrekontua negatiboa ateratzen bazait eta gastuen ehuneko altuena beharrezkoak ez diren gastuak (baztergarriak) badira (aisialdiko gastuak...), errazago gutxitu ahal izango ditut eta nire aurrekontua orekatu.

Gastuen ehuneko altuena nahitaezko gastu finkoak badira (hipoteka, alokairua, aseguruak...), ordea, ez da hain erraza izango aurrekontu horri buelta ematea, eta orekatzeko beste irtenbide sakonago batzuk bilatu beharko dira (alokairu merkeagoa duen etxera joan, diru-sarrera altuagoak lortzen saiatu, mailegu edo hipoteken kuotak gutxitzen saiatu epea aldatuz... eta abar).

Gastuen ehuneko altuena beharrezko gastu aldakorak direnean (janaria, arropa, argindarra, gasa...), ordea, ezingo ditugu guztiz kendu, baina agian aztertu dezakegu gure kontsumo ohiturak egokiak al diren edo gastu horiek murrizteko biderik dagoen (argindar edo gas konpainia ezberdinak aztertu, eskaintzak al dauden ikusi, zentzuzko kontsumoa egin, janaria non erosten dugun ikus eta kalitatea gutxitu gabe kostua gutxitu dezakegun aztertu, adibidez, eskaintzak probestuz... eta abar).

Aurrekontua positiboa bada ere, komenigarria izaten da ikustea zein gastutara doan aurrekontuaren ehuneko handiena, aztertzeke ea horiek gutxitu daitezken eta gure aurrezteko gaitasuna handitu.

#### 4. AURREZKIA

##### 3.1. AURREZKIA

###### 3.1.1. ZER DA?

Denok dugu diru-kezkarik ez izateko ametsa, nahi dugun denetarako dirua izatea. Dirua, ordea, ez da mugagabea. Diru lortzeak esfortzua eskatzen du, lana egitea eta askotan ez dira ziurrak: lana galdu dezakegu, gure negozioa pikutara joan daiteke....

Gastuak, berriz, ugariak dira eta askotan, espero ez genituenak sortzen zaizkigu (gaixotasun bat, etxean matxurak sortzea....).

Diruarekin kezkarik ez izateko modu hoberena, aurrezte da. Aukera dugunean, dirua gordetzen badugu, ezustekoak sortzen direnean edo gure aurrekontua negatiboa denean, aurrezkiak baliagarriak izango zaizkigu egoerari aurre egiteko.

Aurrezkiak, azken finean, gure-diru sarreretatik gastatzen ez dugun diru kantitateak dira. Horiekin, etorkizuneko gastuak ordaindu ahal izango ditugu.

###### 3.1.2. AURREZTEKO ARRAZOIAK

Dirua aurreztuta izateak lasaitasun finantzarioa emango digu. Ezusteko gastuak askotan sortzen dira bizitzan eta horiek ordaintzeko nahiko diru gordeta izateak ardurak kentzen dizkigu.

Aurrezteko arrazoi nagusienak hauek dira:

#### A) ETORKIZUNEN PLANAK EDO AMETSAK BETETZEA

Denok ditugu etorkizunean bete nahi ditugun planak edo ametsak: oporrak, etxe edo kotxe berria, ikasketak, negozio bat sortzea....

Dirua gutxika aurreztuz bagoaz, etorkizunean plan horiek burutzeko aukera emango ditu.

#### B) LARRIALDI EDO EZUSTEKOEI AURRE EGITEA

Beti sortu daitezke gure aurrekontuan jasota ez genituen gastuak: gaixotasun bat, matxurak, istripu bat.... Sortzen zaizkigunean, gerta liteke momentu horretan ez izatea nahikoa diru-sarrera horiek ordaintzeko. Aurrezkiak baditugu, gastu hauek ordaintzerik izango dugu arazorik gabe.

#### C) ETORKIZUNEAN ZORRIK EZ IZATEA

Aurrekontua negatiboa ateratzen zaigunean, aurrezkiak ez badugu, maileguren bat eskatzeko beharra izango dugu. Aurrezkiak baditugu, ordea, ez dugu zorpetzeko beharrik izango eta zorpetzeak dakarzkigun ardura eta gastuak ekidingo ditugu.

#### D) GUSTUKO EZ DITUGUN LANAK EDO LAN-EGOERA ONARTZEA

Diru falta dugunean, askotan, atsegin ez dugun lan bat hartu edo nahi ez ditugun lan-baldintzetan (ordutegi kaskarrak, aste buruak...) aritu beharra sortzen zaigu. Aurrezkiak baldin baditugu, ordea, lana galduz gero, lasaitasuna izango dugu gogoko dugun lana bilatu arte eta benetan atsegin dugun lana bilatu ahal izango dugu.

#### E) JABETZAK MERKEEGI SALDU BEHAR EZ IZATEA

Diru-faltak egin dezake gure jabetzak (etxea, negozioa, kotxea...) azkar eta merkeegi saldu behar izatea, gure egoera okertuz. Aurrezkiak baditugu, berriz, erabakiak lasaitasunez eta egoki hartu ahal izango ditugu.

#### F) ZORPETZEKO AUKERA GEHIAGO IZATEA

Aurrezteko gaitasuna duenak, zorpetzeko beharra izanez gero, errazago lortu ahal izango du finantzaketa bat. Aurrezteko gaitasuna duenak, berez, erraztasun gehiago izango baitu zorra itzultzeko.

### 3.1.3. ZENBAT AURREZTU BEHAR DA?

Aurreztu beharreko kopurua desberdina da guztiontzat; denok ez dugu egoera berbera ez eta aurrezteko gaitasun berdina. Hala ere, badaude kontutan hartu beharreko hainbat faktore, aurreztu beharreko kopurua kalkulatu ahal izateko:

#### A) JABETZA-KOPURUA EDO ONDASUN-ABERASTASUNA

Jabetza edo aberastasun ugari duten pertsonak kezka gutxiago izaten dituzte diruaren inguruan. Kasu horietan, eta nahikoa ondasun-aberastasuna badute, ez dute aurrezteko horrenbesteko beharrik izango. Hala ere, inork ez du ezer betirako bermatua eta aurrezteko ohitura egokiak izatea denontzat da baliagarria. Behar gehiegi ez izanda ere, ondasun asko dutenek ere aurrezteko komenigarria da lasaitasun osoa izateko.

#### B) DIRU-SARREREN FINKOTASUNA

Guztion diru-sarrerak ez dira beti egonkorak. Lanak, askotan ez dira betirako, eta momentu batean ditugun diru-sarrerak gerta liteke aurrerago desagertzea edo gutxitzea. Lana eta soldata ziurtatuta duten bakarrak funtzionarioak dira eta hauek, diru-sarrerak bermatuta izanda ere, ezusteko gastuak ere izan ditzakete.

Hala ere, gure lana ez bada finkoa edo etorkizunean mantenduko ote dugun ez badakigu, egokiena da soldata hori dugun artean, ahal dugun guztia aurrezteko. Zenbat egonkortasun gutxiago izan diru-sarreretan, orduan eta gehiago aurrezteko komeni da.

#### C) OSASUNAREN EGOERA

Gure osasunaren etorkizuna ez da inoiz ziurra, baina osasun ona ez duten pertsonak, ahal duten gehiena aurrezteko komeni da. Posible da etorkizunean Gizarte Segurantzak ordaintzen ez dituen gastuak izatea (hainbat tratamendu, etxea moldatu behar izatea...) eta, bestalde, osasuna falta denean, zaila da lan egin ahal izatea eta diru-sarrera egokiak izatea.

Hori guztiagatik, osasuna egokia ez dutenei, komeni zaie gastuak ahal den guztia gutxitzea eta posible duten guztia aurrezteko, etorkizunean sortu daitezkeen beharrei aurre egiteko.

#### D) FAMILIA-EGOERA

Familiaren osakerak ere eragina du aurrezteko beharrean. Familia batek seme-alaba kopuru handia edo adineko edo dependentziadun senideak badituzte, posible da etorkizunean diru-behar altuagoak izatea (seme-alaben ikasketak, etxea moldatu behar izatea senideentzat, pertsonaren bat kontratatu behar izatea senideak edo seme-alaben zaintzan laguntzeko...).

Kasu horietan, komeni da ahalik eta diru gutxien gastatzea beharrezkoak ez diren gastuetan eta ahal den guztia aurrezteko.

### 3.2. BANKU-KONTUAK

Bankuak eta kutxak enpresa eta familien aurrezkiak lortzen saiatzen dira. Hauek bereganatuz, diru hori erabil dezake beste familia eta enpresa batzuei eskaintzeko, finantza-produktu ezberdinen bitartez: maileguak, inbertsioak...

Bankuak eta kutxak, beraz, diru-merkatua kudeatzen duten bitartekariak dira, familia eta enpresen beharrik asetuz eta zerbitzu horren trukean etekinak lortuz.



Bankuei, dirua banku-kontuetan dituzten aurreztaileei interes txiki bat eskainiko diote eta, ondoren, diru hori beharra dutenei eskainiko diete trukean interes handiago bat kobratuz. Eta kobratzen duten interes handiaren eta ordaintzen duten interes txikiaren arteko diferentzia bankuen irabazia izango da.

Bankuek eskaintzen dituzten produktuak asko dira, baina ohikoetan banku-kontuak dira, diru gordetzeko funtsezko euskarriak. Kontu hauek mota ezberdinetakoak dira. Hauek, bi motetakoak izan daitezke:

### 3.2.1. AGERIKO GORDAILUAK

Hauek dira bankuak eskaintzen duten produkturik ohikoena. Kontu hauetan diru duten bezeroak, edozein momentutan eskuratu dezakete eta horregatik deitzen zaie ageriko kontuak, dirua aldiro agerian baitago.

#### A) EGIN DAITEZKEEN ERAGIKETAK

Kontu hauekin, banku eragiketa ugari egin daitezke. Ohikoenak hauek dira:

- Diru-sarrerak eta diru-ateratzeak bulegoan nahiz kutxazain-automatikoetan
- Txartelen bidezko ordainketak kontuaren aurka
- Mugikor bidezko ordainketa
- Ordainagiriaren helbideratzeak
- Diru-transferentziak beste kontuetara (banku berekoak nahiz beste banku batekoak)
- Mailegu-kuoten ordainketak
- Pentsio-planetako ekarpenak
- Aurrezki-planetako ekarpenak

#### B) AGERIKO BANKU-KONTU MOTAK

Bi motetako ageriko banku-kontuak daude:

- Kontu korronteak: Dirua eskuratzeko txekuek edo txartelak erabil daitezke.
- Aurrezki-kontuak: Dirua eskuratzeko aurrezki-libreta erabiltzen da.

Mota ezagunena, hauen artean, gazteentzako libretak dira. Libreta horiek ezaugarri bereziak eta pizgarriak dituzte, gazteen aurrezki sustatzeko: komisiorik ez dute, interes altuagoa jasotzen dute, zozketak, opariak....eta abar. Libreta hauek 0-25 urte tartean balia daitezke.

#### C) ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

Beste kontu motekin alderatuz, ageriko gordailuek abantaila eta desabantaila hauek dituzte:

ABANTAILAK	DESABANTAILAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Erraz kontrata daitezke</li> <li>○ Likidezia osoa dute</li> <li>○ Kutxazainetatik erraz kudea daitezke</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Errentagarritasun baxua dute</li> <li>○ Komisio eta gastuak ditzakete: mantentze-komisioak, administrazio-komisioak, eragiketa-komisioak</li> </ul>

○ Mugimendu guztien informazioa zehazten da aldiro	○ Txartelek kostua dute urtean
--	--------------------------------

Gazte-libreteren kasuan edo kontuetan hainbat baldintza betetzen direnean (nomina helbideratua izatea, bankuarekiko lotura handia izatea...), komisio eta gastuak gutxitu edo desagertzen dira.

### 3.2.2. EPE FINKORAKO GORDAILUAK EDO EZARPENAK

Kasu honetan, kontuaren titularrak akordio bat egiten du bankuarekin. Ondorioz, dirua epe batez kontuan uzteko (atera gabe) konpromezua hartzen du eta, trukean, interes altuago bat jasotzen du.

Epe horretan, ezingo du dirua berreskuratu (eta uzten badiote, penalizazioak jasoko ditu, normalean, interesen parte bat galtzea).

Bestalde, kontu hauek ezingo dira ohiko banku-eragiketen euskarri gisa erabili; hau da, kontu hauekin ezingo da transferentziarik egin, txekerik kobratu, kutxazainetik dirua atera, ordainagiriak helbideratu eta abar. Azken finean, kontu hauen helburua ez da izaten eguneroko beharrei aurre egitea; baizik eta aurrezte eta diruari etekin handiagoa ateratzea.

### 3.2.3. BANKUETAN ON-LINE LAN EGITEAREN INGURUAN KONTUTAN IZAN BEHARREKOAK

Kontu hauek ageriko gordailuen antzekoak dira, baina internet bidez kontratatu eta kudeatzen dira, bulegotik pasa gabe kontu hauek irekitzeko edo ixteko. Bestalde, kontu hauen mugimenduak ere ez dira postontzian jasotzen paper formatuan, baizik eta interneteko aplikazio edo email bidez.

Hala ere, kontu hauek ez dute galtzen bulegotik pasatzeko aukera, beti joan ahal izango gara dudarik badugu edo laguntza behar badugu, eta bulegoko kutxazainak ere baliatu ahal izango ditugu.

#### A) ABANTAILAK

Kontu hauen abantailak ugariak dira:

- Erosoak dira
- Ez gara bulego orduetara mugatu behar hauekin eragiketak egiteko.
- Azkar irekitzen dira
- Eragiketa-kostu, komisio eta gastu gutxiago dituzte
- Etengabeko informazioa mugimenduen gainean
- Eskaintza eta zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte

#### B) ARRISKUAK

Kontu hauen kudeaketa internetetik egiten denez, bertan sor daitezkeen arriskuak dituzte bere gain. Horregatik, bankuek nahiz bezeroek, segurtasun neurri egokiak izan beharko dituzte kontu hauen kudeaketari dagokionean. Interneten aritzeko, komenigarriak dira hainbat ohitura egoki hartzea:

- Seguruak diren orrietan baino ez aritzea (giltzarrapoa dutenak edota https-z hasten direnak).
- Gako edo segurtasun-koderik ez sartzea ziurrak ez diren orrietan eta emailez ez bidaltzea.
- Sakeleko telefono bidez aritzen bagara banku-kontuen aplikazioetan, telefonoak babestea segurtasun kode edo blokeo-pantailekin.
- Kodeak epeka aldatzea.
- Gako-txartelak edo segurtasun kodeak gainean ez eramatea, etxean leku ziurrean gordetzea eta inoiz ez bidaltzea hauen kopia edo argazkirik.
- Nabigatzaileak eguneratzea, birusen aurkako programa eguneratuak erabiltzea eta suebakiak baliatzea.
- Leku publikoetako ordenagailuetan arreta berezia jartzea eta inoiz gakoak ez gordetzea.

## 5. INBERTSIOA

### 5.1 ZER DA?

Aurrezten dugunean, dirua gordeta dugu beharrak edo larrialdiak sortzen direnean baliatu ahal izateko.

Diru hori erabiltzen ez dugun bitartean, ordea, geldi eduki beharrean, saia gaitzke diru hori etekin handiagoa ateratzen. Horri **inbertitzea** deritzo.

Inbertsioen bidez, diruari hainbat erabilera emango diogu, etorkizunean diru gehiago izateko asmoz.

Aurrezki eta inbertsioa, beraz, oinarri berdina izanda ere (etorkizunean dirua izatea), desberdintasunak dituzte:

- Helburua desberdina dute: aurrezkiak dirua gordetzea du helburu; inbertsioak errentagarritasuna lortu nahi du diru hori baliatuz, etorkizunean diru gehiago izateko.
- Segurtasuna: aurrezki guztiz ziurra da, ez digu dirua inolaz arriskatzen; inbertsioan, inbertsio motaren arabera, dirua arriskuan jar dezakegu ala ez.
- Desabantailak: aurrezkiak errentagarritasun txikiagoa du; inbertsioak arrisku handiagoa du, dirua arriskatzen da etekin handiagoak lortzeko.

### 5.2 INBERTSIOEN SAILKAPENA

Inbertsioak sailkatzeko 3 irizpide erabiltzen dira:

- **Likidezia:** likidezia dirua “likido” bihurtzeko gaitasuna da. Inbertsio batean, dirua berehala berreskura badezakegu, likidezia osoa izango du; dirua berreskuratzeko itxaron behar badugu, likidezia baxua izango du.
- **Segurtasuna:** inbertsioan dirua galtzeko arriskurik ez badago, ziurra dela esango dugu; dirua galtzerik badago, ordea, arriskua dagoela esango dugu.
- **Errentagarritasuna:** Etekina lortzeko gaitasuna da. Inbertitutako diruarekin zenbat eta diru gehiago lortu, orduan eta errentagarritasun altuagoa dugula esango dugu.

Inbertsio irizpideak beraien artean erlazionatuta daude: errentagarriak diren inbertsioak, likidezia eta segurtasun gutxi izaten dute, eta alderantziz, likidezia altua badute eta ziurrak badira, errentagarritasun baxuagoa dute. Inbertitzailearen esku egongo da

inbertsio mota bat edo bestea aukeratzea, likidezia eta segurtasuna edo errentagarritasuna hobetsiz.

Hiru irizpideak konbinatuz, inbertsio mota ezberdinak izango ditugu: errenta finkoko baloreak, errenta aldakorreko baloreak eta inbertsio funtsak.

### 5.3 INBERTSIOEN EPEA

Aurreztea edo inbertitzearen arteko aukeraketan, epeak garrantzia du. Normalean, aurrezkie epe motzerako ekintza izaten da eta inbertsioa epe luzeragora:

- Epe motzean: normalean zenbateko oso altukoak ez diren gastu edo erosketak egiteko, aurreztu egiten dugu. Adibidez: oporrak, mugikorra, motorra, etxeko erreformak...

Modu horretan, gastua egin behar dugunean, dirua eskuragarri dugu modu azkar eta erraz batean.

Aurrezki hau ere, egin ohi da (eta egitea komeni da), nahiz eta helburu jakin bat ez izan, nolabaiteko diru kantitate bat eskuragarri izateko, ezustekoak gertatuz gero, horiei erosotasunez aurre egiteko.

- Epe luzean: Dirua epe luze batera gorde nahi izaten dugunean, ohiko da aurreztu baino, diru hori inbertitzea; denboraren poderioz diru horri errentagarritasuna ateratzeko eta gordetako diru kopura handitzeko.

Orokorrean, erretiroari begira ere horrela egin ohi dugu. Erretiratzen garenerako gure osasun ekonomikoa bermatu nahi badugu, aurretik plangintza ekonomiko egokia egin behar dugu.

Inbertsio mota hauek, bereziki pentsio planenak, aurrezteko errutina bat izatea eskatzen dute eta errentagarritasun egoki bat bermatuta izan ohi dute (beti ez bada ere, aukeren arabera). Bestalde, pentsio planetan inbertitzen goazen heinean, onura fiskalak ditu, obligazio fiskalak atzeratzen baititu diru hori kobratu arte. Likideziaziari dagokionean, ordea, ez dute likidezia erraztasunik, dirua ezin baita nahi denean berreskuratu; soilik aurretik ezarritako kasuetan.

Hala ere, epe motzerako inbertsioak (burtsan edo negozio batean....) edota epe luzerako aurrezkiak ere ematen dira (dirua guztiz eskuragarri izan nahi denean).

### 5.4 INBERTSIO MOTAK

#### 5.4.1 ERRENTA FINKOKO BALOREAK

Inbertsio mota hauei **zor publikoa** deritze. Errentagarritasuna eta dirua gelditu beharreko epea aldeztu aurretik finkatzen dira. Zenbat eta epea luzeagoa izan, orduan eta altuagoa izaten da errentagarritasuna.

Zor publikoa erakunde publikoek jaulkitzen dute, nagusiki, administrazio zentralak; baina autonomia-erkidegoek ere egin ohi dute. Hala ere, administrazio zentralak jaulkitakoak ziurragoak dira autonomia-erkidegoak baino.

Herri gehienek jaulkitzen dute zor publikoa, estatuak duen finantzaketa modua da; herriko administrazioek mailegua bankuei eskatu beharrean, hiritarrei eskatzen diete dirua, trukean interes altuak eskainiz (interes hauek bankuak kobratuko lukeena baino baxuagoa da, hala ere). Epe batez, hiritarrak dirua mailegatuko dio estatuari, bankuan lortuko lukeen interesa baino altuagoa lortuz eta, aldi berean, estatuak mailegua bankuari eskatuz baino merkeago lortzen du.

Errenta finkoan, ezaugarri hauek ematen dira:

- **Likidezia:** ez dute. Inbertsioak iraun bitartean, dirua ezin da berreskuratu.
- **Segurtasuna:** ia erabatekoa, estatuak bermatzen baitu.
- **Errentagarritasuna:** epea luzatzen den heinean igotzen da.

#### 5.4.2 ERRENTA ALDAKORREKO BALOREAK

**Akzioen** erosketan egindako inbertsioak dira. Errenta aldakorraren kasuan, errenta finkoan ez bezala, ez dugu errentagarritasuna aldezturik ezagutuko eta inbertsioaren epea ere finkatu gabe egongo da.

Inbertitzaileak enpresa edo negozio bateko akzioak erosten dituenean, bertako jabetzaren parte bat erosten du, bazkide-jabe bihurtuz eta enpresa edo negozioaren kudeaketan parte hartu izango du. Ondorioz, ez dago eperik bere inbertsioa berreskuratzeko. Bazkidea den bitartean, enpresa edo negozioa ondo badoa, dibidenduak edo etekinak lortuko ditu.

Errenta aldakorrean, ezaugarri hauek ematen dira:

- **Likidezia:** erabatekoa da, edozein momentuan saldu daitezke akzioak eta dirua berreskuratu (agian ez inbertitutako guztia).
- **Segurtasuna:** berez, ez dute segurtasunik. Balore batzuk besteak baino ziurragoak badira ere, ezin zaurtu daitezke inbertitutako dirua ez galtzea.
- **Errentagarritasuna:** aldakorra da, ezin jakin daitezke aurretik, oso altua izan daitezke, hala negatiboa.

#### 5.5 INBERTSIOEN ARRISKUA

Ikusitako inbertsioek arrisku maila ezberdina dute. Arriskuaren arabera sailkatzen baditugu, gutxienetik gehienara, ordena hau litzateke:

- 1) Errenta finkoa
- 2) Errenta aldakorra

Inbertsioen arriskua gutxitu nahi badegu, inbertsio mota ziurreneta joan beharko dugu; baina, badaude ere, inbertsioen arriskua murrizteko, bideak; besteak beste, dibertsifikazioa:

##### A) DIBERTSIFIKAZIOA

Inbertsio-funtsetan aipatu dugun moduan, arriskua gutxitzeko modu bat dirua inbertsio ezberdinen artean banatzea da. Denek dute bere arriskua, baina dirua banatzen badugu inbertsio ezberdinetan, zailagoa izango da denak gaizki joatea. Ordea, diru guztia inbertsio bakar batean jartzen badugu eta gaizki badoa, dena galduko dugu.

Dirua inbertsio ezberdinen artean banatzeari, **dibertsifikazioa** deritz

## 6. ZORRA

Aurreztearen aurkakoa da. Hau da, gastuak diru-sarrerak baino handiagoak direnean, gure aurrekontua negatiboa izango da eta falta zaigun diru hori eskatu beharko dugu bankuan edo beste nonbaiten. Eskatzen dugun diru hori zorra izango da eta diru hori itzuliz joan beharko gara pixkanaka etorkizunean ditugun diru-sarrerekin.

Hau da, aurrezten dugunean, etorkizuneko gastuak iraganeko diru-sarrerekin (gordeta ditugun horiekin) ordaintzen ditugu. Zorpetzen garenean ordean, iraganeko gastuak etorkizuneko diru-sarrerekin ordaintzen ditugu.

Bizitzan zehar, nahiz eta finantza kudeaketa eta aurrekontu egokiak egin edo aberastasun maila egoki izanda ere, arrunta izango da finantzaketa beharra izatea; batez ere, inbertsio handiak egin behar badira: etxea edo kotxea erosteko, negozio bat montatzeko... eta abar.

Zorpetzen garenean, dirua berehala dugu eskuragarri eta gure beharrak momentuak asetu ditzakegu. Kasu askotan, zorpetuko ez bagina, ezingo genituzke hainbat jabetza erosi edo inbertsio egin, bizitza osoa beharko genukeelako behar dugun dirua pilatzeko eta, dirua lortzerako, jabetzaren prezio altuagoa litzateke. Zorpetzeari esker, momentuan eros dezakegu jabetza edo sortu dezakegu negozioa eta hurrengo urteetan itzultzen joan dirua.

### 6.1. ZORRAREN KOSTUA ETA KUDEAKETA

Aipatu bezala, zorpetzea aukera ematen digu momentuak lortezinak direnak erosteko, baina bere alderdi negatiboak ere baditu:

- 1) Familiaren aurrekontuan gastuak gehitzen ditugu (mailegua itzultzen joango gara, eta diru horri aurrekontuan gastu gisa gehituko da.
- 2) Maileguk kostuak dituzte (interesak, gastuak, komisioak...) eta, beraz, itzultzen dugun diru kopurua, utzi digutena baina altuagoa izaten da.

### 6.2. ZORPETZE MAILAK

Pertsona edo familia bakoitzaren egoera desberdina da; baina, hala ere, zorpetze maila gomendagarria, gehienez ditugun diru-sarreraren %15aren ordainketak egitea eskatzen digutenak izango dira.

Mailegua itzultzeko gure hileko diru-sarreraren %15a baino gehiago ordaindu behar badugu, gure aurrekontuan gehiegizko gastuak izan ditzakegu. Gomendatutako zorpetze mailak honakoak dira:

Zorpetze maila: (Diru-sarrerekiko %a)	Egoera-finantzarioa
% 0-10	Egokia
% 10-15	Ertaina
% 15-20	Arriskutsua

Hala ere, zorpetze maila hauek, ekonomia egoerarekin erlazioa dute ere. Adibidez, orain pasa berri dugun krisiak egin du jendeak maila horietatik gora zorpetu behar izatea egoera ekonomikoari aurre egiteko eta, orokorrean, zorpetze maila asko igo da familia eta enpresetan.

### 6.3. FINANTZAKETA MODUAK

Mailegu bat jasotzen dugunean, trukean kostu bat ordaindu beharko dugu, **interesa** deritzona.

Interesa 2 motetako izan daiteke:

- **Interes finkoa:** maileguaren iraupen osoan mantentzen da. Hasieratik finkatzen da interesa eta beti berdina da.
- **Interes aldakorra:** maileguaren iraupenean zehar aldatuz doa, erreferentzia-tasa bati lotuta dago eta. Erreferentzi tasa hau euriborra izan ohi da. Euriborra egunero aldatuz doa, eta gure mailegua epeka errebisatuko denez, euriborraren aldaketak egingo du ordaindu beharreko interesak igotzea edo jaitea, mailegua garestituz edo merketuz.

Mailegu baten interes-tasari (finko nahiz aldakorra) **interes-nominala** deritzo, baina ez da maileguk duten kostu bakarrak. Aurretik aipatu bezala, komisio eta gastuak ere izan ohi dituzte, eta horiek mailegua garestitzen dute. Existitzen diren gastu eta komisioak desberdinak izan ohi dira, eta horren maileguen arteko konparaketa zailtzen du.

Horregatik, maileguan beren artean konparatu ahal izateko, urteko tasa baliokidea (UTB) erabiltzen da. **UTBa** kalkulatzeko, maileguak dituen kostu guztiak biltzen dira eta horiek kontutan hartuz, benetan ordaintzen dugun % kostua adierazten digu. Bi maileguen UTBak (eta ez interes nominalak) konparatuz, jakin dezakegu zein den merkeena.

### 6.4. ZORRIK OHIKOENAK

Dirua lortzeko bide ezberdinak daude, eta denek ez dituzte arrisku eta kostu berdinak. Hona hemen finantzaketa lortzeko modu ohikoenak:

#### 6.4.1. HIPOTEKA-MAILEGUAK

Etxea erosteko edo konpontzeko eskatzen dira. Dirua itzuliko dugula bermatzeko, etxea jartzen da garrantzia moduan eta, ordainduko ez bagenu, etxea gal dezakegu. Mailegu hauen kontratuak notaritza batean sinatzen dira. Epe luzekoak izaten dira, baina kostu baxukoak.

#### 6.4.2. MAILEGU PERTSONALAK EDO KONTSUKO MAILEGUAK

Oso ohikoak dira eta gastu ezberdinei aurre egiteko erabiltzen dira: bidaiak, kotxea, ikasketak, konponketak... Diruaren itzulera pertsonak berak bermatzen du eta kontratu batean jasoko dira baldintza guztiak. Mailegu hauek eman aurretik, dirua eskatzen duenaren egoera ekonomikoa aztertuko da, dirua itzultzeko gai izango dela bermatzeko.

#### 6.4.3. KREDITU-LINEAK

Kasu hauetan, bankuan diru kantitate bat jartzen dio eskuragarri bezeroari eta horren behar duen parte soilik erabiliko du aldiro. Interesak, erabiltzen den partetik ordainduko dira soilik.

#### 6.4.4. KREDITU-TXARTELAK

Txartel hauen bidez, erosketak egin ditzakegu nahiz eta dirurik ez izan. Hilabetean zehar egindako ordainketak, hurrengo hilabete hasieran ordaintzen dira (kosturik gabe) edo pixkanaka ordaintzeko aukera ere badago.

#### 6.4.5. SALTOKIETAKO TXARTELAK

Kreditu-txartelen antzekoak dira, baina denda ezberdinek sortzen dituzte, bertan egindako erosketak finantzatzeko. Saltokitik kanpora ez dute baliorik.

#### 6.4.6. BANKUETAKO ZENBAKI GORRIAK EDO ZORPEKOAK

Kontuan dirurik ez dagoen arren, ordainketa egiten direnean. Dirua negatiboan geratzen da, nolabait eta horri zenbaki gorriak deritzo. Interes altua eta kostuak izan ohi dituzte.

#### 6.4.7. BANKUETATIK KANPOKO KREDITU ERRAZ EDO AZKARRAK

Kopuru txikiko kredituak eskaintzen dituzte bankuak ez diren kreditu-erakundeek. Izapide gutxi egin ohi dira eta modu azkar batean gauzatzen dira. Interes maila ezberdinetakoak daude; baina askotan interes oso altua dute. Hala ere, oso erabilpen altua dute, bankuek baino baldintza gutxiago eskatzen baitituzte mailegua lortzeko eta, askorentzat, aukera bakarra izaten da, bankuek ez dietelako mailegurik eskaintzen

Mailegu mota bakoitzak, bere kostuak ditu. Hona hemen kostuaren arabera sailkapena:

Finantzaketa edo zor mota	Kostua
Maileguak	Baxua
Mailegu pertsonalak edo kontsumo-maileguak	Ertaina
Mailegu-lineak	Ertaina
Mailegu-txartelak	Altua (Pixkanaka ordaintzen direnean)
Mailegutako txartelak	Mailegu ezberdinak dituzte, aztertu behar da kasu bakoitzean
Mailegutako zenbaki gorriak edo zorpekoak	Oso altua
Mailegutatik kanpoko kreditu erraz edo azkarrak	Mailegutan oso altua, baina ikusi behar kasu bakoitzean.



Ahal den heinean, zorpetu behar bagara, finantzaketa mota merkeena bilatu beharko dugu (UTB tasa baxuena duena) eta ahal den heinean, ez ditugu erabiliko kostu altua duten finantzaketak, horiek gure gastuak izugarri gehituko baitizkigute.

Hala ere, finantzaketa aukeratzeko orduan, kostua faktore bat izango da (dituen interes eta gastuak), baina ez bakarra; gure beharrei eta inbertsio motari hobekien dagokiona aukeratu beharko dugu ere.

#### 6.5. FINANTZAKETA LORTZEKO BALDINTZAK

Finantzaketa bat eskatzera goazenean, bankuak edo kreditu erakundeak, itzuliko diogula bermatu nahiko du. Horregatik, gure egoera ekonomikoa aztertuko du erabakia hartu aurretik:

- Lana dugun ala ez eta, izatekotan, lana finkoa ala epe baterakoa al den.
- Jasotzen dugun soldata maila
- Ditugun gastuak (beste mailegu edo hipotekak, seme-alaba kopuruak, beste gastuak...)
- Ditugun jabetzak edo inbertsioak (akzioak, etxeak, garajeak, kotxeak...).
- Gure bikotearen edo familiaren egoera ekonomikoa (askotan, eskatuko digute pertsona batek baino gehiagok bermatzea diru itzulera)
- Gure kreditu-historiala: ea aurretik izan ditugun zorrak ondo ordaindu ditugun, ordaindu gabeko zorrik dugun...eta abar.

#### 6.6. MAILEGU KONTRATUAK

Maileguak idatziz gauzatzen dira **mailegu-kontratu** batean. Bertan maileguaren baldintzak idatziz geratuko dira eta bi alderdiek sinatuko dute: mailegu-emaileak eta mailegu hartzaileak.

Kontratuan agertzen diren informazioak dira:

- Printzipala: maileguan emango den diru-kopurua. Kopuru honekiko kalkulatu dira interesak, gastuak eta komisioak.
- Interes nominala: ehunekotan adierazten da eta mailegatuko 100 euro bakoitzagatik kobratuko den kostua agertzen du.
- Epea: Zenbat denbora izango duen mailegu-hartzaileak zorra itzultzeko. Zenbat eta luzeagoa izan epea, orduan eta baxuagoa izango da hilero ordaindu beharreko kuota (zenbat eta hilabete gehiagotan zatitu mailegatutako kopurua, orduan eta gutxiago ateratzen da).
- Kuota: zenbat ordainduko den hilero. Ordainketa horren parte bat zorra gutxitzeko izango da eta beste parte bat interesak ordaintzeko.
- Mailegu-emailea: dirua uzten duen finantza-erakundea, normalean bakuna edo kutxa.
- Mailegu-hartzailea: dirua jasoko duena eta zorra ordaintzen joango dena.
- UTBa: Maileguaren benetako kostua 100 euro bakoitzeko, kontutan izanik kostu guztiak (interes nominala, komisioak, gastuak...).
- Komisioak: Finantza erakundeak kobratuko dituen kostu gehigarriak hainbat arrazoiengatik (mailegua ireki, itxi, ....).
- Gastuak: Maileguaren inguruan sor daitezkeen beste hainbat gastu: tasazioa, notaritza, aseguruak...

Kontratua definitu aurretik, mailegu-hartzaileari askotan aukera ezberdinak emango zaizkio interes, epe eta kuotari begira, bere beharretara eta egoera ekonomikora moldatzeko. Bezzeroaren konpromezuaren arabera bankuarekiko, interes hobea edo okerragoa lortu ahal izango du. Bankuak, bestalde, kontutan izango du eragiketa horrek duen arriskua baldintzak finkatzerako orduan. Arrisku gutxiagoko eragiketa batek, ziurrenik, baldintza hobek jasoko ditu, arrisku handiko batekin alderatuz.

Bestalde, aukera desberdinak egon daitezke epe eta kuota kopuruari begira. Itzultzeko epea motza bada, kuota handituko da eta epe luzatzen bada, kuota gutxituko da.

## 6.7. EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOAK

Aurrekontuen atalean, aztertu dugu gastuak ez ordaintzeak dituen ondorioak. Zorrak ez ordaintzeak ere ondorio berdinak izango ditu; azken finean, guretzako nahitaezko gastu finko bat baitira.

Modu laburrean, ondorioak hauek dira:

- Zorra handitzea
- Epaiketei edo auziei aurre egin behar izatea
- Gure ondasunak galtzea edo enbargoak jasatea
- Kreditu-historiala okertzea
- Bermeak edo abalak badaude, hauek arriskuan jarriko ditugu (familiako baten etxea edo propietateak... eta abar).

## 7. BANKUEKIN HARREMANAK

Bankuen eta beren bezeroen arteko harremanak, beste enpresa askotan ez bezala, kontratu bidez zehazten dira: kontu bat irekitzeko, txartela eskatzeko, edozein produktu kontratatzeko....

### 7.1. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Banku eta bezeroen arteko kontratuetan, alde bietarako eskubide eta betebeharrak ezartzen dira.

Kontratu horiek, beraz, garrantzi handia dute eta bertan dagoen eduki osoa (letra txikian dagoena barne) irakurtzea eta ulertzea ezinbestekoa da. Ulermen hori bermatzea, alde bietako ardura da, bezero batek ezin baitu, legez, kontratatu ulertzeko gai ez den edozein produktu finantzario. Ondorioz, bezeroek, ez lukete sinatu beharko inongo banku-kontraturik, hura osotasunean ulertu arte.

### 7.2. INFORMAZIOA ETA NEGOZIAZIOA

Bankuak eskaintzen duen produktu berdin batek, baldintza ezberdinak izan ditzake bezero batekiko edo bestearekiko. Besteak beste, bezero batetik bestera faktore hauek alda daitezke:

- Komisio eta gastuak
- Zorpeko edo zenbaki gorriek dituzten kostuak
- Txartelen kostuak

Bankuak, bezeroaren hainbat ezaugarri kontutan hartuko ditu horiek ezartzeko momentuan, besteak beste:

- Bankuarekiko atxikipena (nomina helbideratua izatea, aseguruak ala pentsio planak kontratatua izatea...).
- Bezeroaren ezaugarriak ikusita, bankuak duen interesa bezero hori eskuratzeko edo ez galtzeko.
- Bezeroaren gaitasun finantzarioa.

Horregatik, produktu bat banku batekin kontratatu aurretik, aukera eta eskaintza ezberdinak aztertzea komeni da eta, ondoren, banku ezberdinekin negoziatzea, aukerarik hoberena kontratatu ahal izateko.